



**Arartekoaren 2013ko ekainaren 26ko ebazpena. Horren bidez, (...)ko Udalari etxebizitza mugakide batean eguzki-energia atzitzeko sistema bat instalatu izanagatiko salaketa bati erantzun diezaiola gomendatu zaio.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek azaldu digu (...)ko Udalari eskabide bat aurkeztu ziola, (...) kaleko (...). zenbakiko teilatuan eguzki-energia atzitzeko sistema bat instalatuta dagoela eta salatzeko, eta Udalak erantzunik eman ez duela, guk azter dezagun.

Instalazio horrek hainbat eragozpen sortzen du zaraten ondorioz, eta eragozpen horiek erreklamaziogilearen bizilekuari eragiten diote. Arrazoi horregatik, 2011ko apirilaren 26an eskatu zuen Udalak instalazioa azter zezala eta indarreko araudia betetzen duen egiazta zezala, bereziki sortzen duen zaratagatik. Gerora, 2011ko ekainaren 20an eta 2012ko maiatzaren 2an, horri buruz hasitako udal administrazio-espeditentearen tramitazioaren egoerari buruz informazioa eskatu zuen.

Udalaren jarduketa bakar baten berri dauka: udaltzaingoko agente bat, erreklamaziogileak eskatuta, 2012ko abuztuaren 9an etxebizitzan agertu zen.

Kexaren sustatzaileak azaldu duenez, ez du Udalaren erantzunik jaso, ezta informaziorik ere, bere erreklamazioari erantzuteko egindako jarduketei buruz.

2. Erreklamazio hau izapiderako onartu zen, eta horrenbestez, 2012ko abuztuan (...)ko Udalarengana jo genuen informazioa eskatzeko, azaldu den eskariari Udalak emandako izapidearen eta bidezkoa izanez gero egindako administrazio-espeditenteen gainean.

Informazio hori ez zen bidali aurreikusitako epean, eta Arartekoak birritan eskatu behar izan zuen bidaltzeko (2012ko urtarrilaren 6an eta 2013ko martxoaren 27an).

Azkenean, udalak txosten bat bidali digu, 2013ko martxoaren 25ekoa. Txosten horretan, salaketa-idazkien inguruan egindako jarduketan berri eman digu, besterik ez.

Administrazio-espeditentean, erreklamaziogilearen eskariak soilik ageri dira, ikuskatzekoa eta indarreko araudia kontrolatzekoa, alegia. Udaltzaingoko



agente baten ikuskapen-akta ere dakar, eta (...) kaleko (...)aren estalkian instalatutako gailuari buruz aholkularitza teknikoak egindako txostena ere bai.

– 2012ko maiatzaren 10eko data duen txosten teknikoak dioenez, ikuskapen-bisitan egiaztatu zen eguzki-energia atzitzeko ekipamendu bat zegoela. Ekipamendu hori, estalkiaren faldoiari atxikitako plaka batek eta erregulazio-multzo batek osatzen zuten. Txostenak dioenez, *“no se detecta la generación de ruidos en el momento de la visita”*. Beste alde batetik, azaltzen duenez, eraikinen estalkietan klimatizaziorako edo eguzki-atzipenerako ekipamenduak instalatzea ez dago araututa hirigintzako araudian, ezta (...)ko hirigunean aplikatu ahal den kultur ondarearen babeseko araudian ere.

– Udaltzaingoko agentearen aktan -2012ko abuztuaren 9ko data dauka-egiaztatzen denez, eguzki-energia atzitzeko instalazioa dago etxebizitzan teilatuan. Halaber, zera azaldu zuen: *“se escucha con claridad el ruido (zumbido) que emite el generador de la misma, al ser bastante elevado y molesto”*. Udal agenteak akta egin zuen, eta akta hori udal espedientean txertatu zen.

Hala ere, (...)ko Udalak bidalitako informazioan ez da ageri erreklamaziogileari ezer jakinarazi zitzaionik.

–Gerora, erreklamaziogileak berriro ere Arartekoarengana jo zuen, instalazioak eragindako eragozpenek beren horretan irauten zutela eta gai horri buruz udalaren informaziorik artean jaso ez zuela salatzeke.

### Gogoetak

1. Erakunde honen esku-hartzearen funtsezko helburua hau da: (...)ko Udalari eskabide bat aurkeztu zaio, (...) kaleko (...). zenbakiko teilatuan dagoen eguzki-energiaren atzipen sistema ikuskatzeko, eta Udalak ez du erantzunik eman.

Salaketari erantzuteko, Udalak txosten tekniko bat eskatu du, eta txosten horretan, azaldu den instalazioa egiaztatu da. Halaber, udaltzaingoaren txosten bat eskatu du, eta txosten horretan egiaztatu da instalazioak zarataren ondorioz eragozpenak sorrarazten dituela.

Hala ere, ez da inon ageri Udalak geroago ezer egin duenik erreklamaziogileari ezer jakinarazteko, ez informazio hori, ezta instalazioak hirigintzako eta ingurumeneko araudia betetzen duela egiaztatzeke neurriak ere.



2. Dagoen instalazioagatik aurkeztutako salaketa eta idazkien aurrean administrazio-erantzunik ez egoteak Udalaren funtzionamendu txarra erakusten du, eta hori agerrarazi egin behar dugu, ondoren azalduko den bezala.

Orokorrean, administrazio publikoek, herritarrekin dituzten harremanetan, administrazio-prozedura bidez bideratu behar dituzte beren funtzio publikoak. Administrazio-jarduera horren jatorriak bi helburu ditu: batetik, administratuen eskubideak bermatzea, eta bestetik, interes publikoa ziurtatzea.

Izan ere, Espainiako Konstituzioak berak (103.1 eta 105 artikulua) jasotzen du administrazio-tramiteen eta herritarrenganako erantzunaren bermea. Halaber, herritarrek administrazio ona jasotzeko eskubidea daukate, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko (Lisboako Itunaren bidez egina) 41. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

Administrazio ona jasotzeko eskubide honen barruan aipa genezake aurkezten diren idazkiak jaso izanaren berri emateko, hori ofizioz sustatzeko eta planteatutako gaien beren-beregi erantzuteko betebeharra. Halaber, administrazioak pertsona interesdunei jakinarazi behar die zein eskubide dituzten beren asmoa betetzeko. Nahiz eta kexa edo interesdunaren asmoa ez izan oso zehatza edo erreklamazioa administrazioaren jarduera-eremutik at egon, administrazio publikoak aipatutako betebeharrak horiek bete beharko ditu.

3. Ildo horretan, eguzki-atzipen termikoko instalazio bat azter zedila eta zaratari buruzko araudia betetzen den ala ez egiazta zedila eskatzeko erreklamazio bat aurkeztu izanak dagokion administrazio-izapidea eskatzen du.

Nolanahi ere, gertaera jakin batzuk aipatzen dituzten eta ingurumen edo hirigintza kontrolaren mendeko instalazio edo jarduera horren eragin estetiko edo zaratagatiko eraginak salatzen dituzten jakinarazpen guztiak –Udalari bidali zaizkionak– salaketatzat jo behar dira eta organo eskudunera bidaliko dira, bertan tramitatu daitezten.

Salaketaren kasuan, gai horren gaineko ekintza publikoa betez, administrazio-espeditatea tramitatu behar da, ingurumenari buruzko legedian ezarritako baldintzetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko arazoaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako arauari jarraiki. Hori horrela, kontuan hartu behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigor-ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 34. artikulua honakoa ezartzen duela, gutxienez: *“organo eskudunaren eskutik kasua ireki ote den azaltzen duen jakinarazpena eta, hala badagokio, hari amaiera ematen dion ebazpena jasotzeko eskubidea”*.





Horren harira, salatutako gaiak baloratu ondoren, organo eskudunak ingurumenaren edo hirigintzaren gaineko diziplina-espeditate egokia ireki behar ote duen baloratu behar du, edo, bestela, eskatzailearen asmoa ezesten duen ebazpena egin. Edonola ere, ekintza publikoa betez, alderdi interesdunei jakinarazi egin behar zaie esku-hartzea artxibatuko dela, kasuan kasu dagozkion ekintzak eta errekurtsioak erabiltze aldera.

Horrenbestez, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

### Gomendioa

Honakoa gomendatzen diogu (...)ko Udalari: aurkeztutako salaketari erantzuna eman beharko lioke, bere eskumenekoak diren ingurumeneko ikuskapen eta kontrol jarduerak egin beharko lituzke, eta bidezkoa balitz, hirigintzako eta ingurumeneko legediaren arabera egokiak diren neurriak hartu beharko lituzke.

